

HITZAURRE MODUAN

Joxe Azurmendi

Hau Gandiagaren azkeneko liburua da – edo izan da, zitekeen, liteke, ez dakit nola esan beharko genukeen: postumoa baita, baina ez guztiz. Hots, hasi eta buka dena berea duzu, bere atal guztietan berak honelaxe bururatu liburu bezala, azkenekoa izango zuen ideian zalantzarik gabe, eta bizi zela argitaratu ez bazuen ere, utzi dituen beste mila nota eta paper sakabanatuen artean, hau argitalpenerako prest bezala aurkitu da, txukun-txukun eta dena bukatua, hitzaurretxoak eta guzti. Berehalaxe nabaritzen da azken urteetako lana dela, heriotzak markatua jada, bizi iraganari eta argitaraturiko obrari so. Gaixo eta makal, beharbada hutsal iritzita ere bere lanari –ohi zuen bezala–, ez da heldu publikatzera.

Bitorianoren adioa da munduari. Formaz nahiz gaiez, bere obra osoaren errepasso bat bezala nolabait. Bere bizitzaren errepasso bat ere bai. Eta bien bilduma halako bat.

Haurtzaro baserritarreko arratsalde handiez oroitzen da Gandiaga. Egundo amaitzen ez ziren udako arratsalde hantndi haiek. Muino tontorretik itsasoa nola ikusi zuen behin gogoratzen da. Gero hamaika aldiz nola ikusi izan duen arratsaldeko argia itsasorantz alde egiten eta joaten. Gure artean berak bakarrik jakin duen moduan, berriz ere hitzen doinu eta erritmoarekin espazio uhinak daki zabaltzen, paisaiak, mendiak, haizeak arboletan. Aitaz gogmutatzen da, haren solasaren ederraz, edozein gaitan berritasuna sortzeko zuen graziaz. Estudiatu ez duen jende xumearen jakinduriaz, etorriaz –eskolak ematen ez duen barruko iturri hori–, berezkoa duena herrian hainbat jendek, inoiz ezer idatziko ez duenak, ez zuelako ikasi idazten eta apenas irakurtzen.

Bitoriano, euskal literaturan honezkero bilakatua dagoen poeta ohoratuari begiz begi so paratuta, bera jende xume haren haurra besterik ez dela azken finean, tinkatzen da. Zein da hori, Gandiaga poeta? Horrek eskola eta astia izan du idatzi ahal izateko. Baina zer idatzi du? Bere azken liburu honetako ataltxo batean poetikari buruz dihardu Gandiagak. Azken urteetan behin baino gehiagotan eskatu zizkieten handik eta hemendik bere obrari buruz hitzaldiak –batere gustuko ez zuena, ukatzen ere ez zekiena ordea–, eta holakoen artean onduak dirateke parrarteok. Berak poetikarik ez daukala batere, muturtzen da, ordea, “Nabarnizko nire jendeari ikasi niona ez bada” behintzat. Aipatu izan ditu beste batzuetan Fray Luis de León eta bere faboritoak. Rilke-eta, maite askoak izanak ditu. Lauaxeta, Lizardi, Orixe. Gandiagak bere traiektoria poetiko pertsonala ere badu aski bariatua, lehenago enpeinu artatsuz landua urratsez urrats, liburuz liburu, ho-

rietako bakoitzean propio saio diferente bat mamitzea entseatzuz esan liteke: *Elorri, Hiru Gizon Bakarka, Uda Batez Madrilen...* Hori dena ahaztu egiten da orain. Loradurak utzi eta, egun, aurrean ja denbora gutxi, iraganera begira, bere esentziala kontsideratzen duenera itzultzen da Gandiagaren arta guztia. Jatorri xumera. Bere izaera lurtar, pobre, jendetarrera. Bera hori da. Edo, hobe: hori nahi du izan. Egiatzapena baino gehiago nahikaria baita: “Ez zen arbola ospetsu izateko jaioa sentitzen. / Beste arbolen taxuko arbola / nahiz arbolatxo izatez / konforme zen”. Orain pentsatzen duen poetika, bizitzaren poetika bat da. Iturriaren jarioan nahi du orain eskolatu: ikustearen garbitasuna ikasi, haren kristalezko tonuan kantatu, haren badoan zortean konformatu bizitza. Poetika bizitzari lotzen zaio: bere jatorriko nekazari jende xumearen hizkuntzari eta bizikizunei, lanari, naturaren bizipenari. Atzera begira, eskola eta ahalegin poetiko-literario guztiak baino barrenago, zinez bere barruan zer dagoen, ohartzen du orain: “Arantzazuko baserriak, artzain etxak, bide zaharrak, harrobiak, izan dira niretzat, nik sekula estudiatu dudak guztian ikas-libururik aberatsena”. Eta bizitzak poetika bezala, poetikak bizitza zer den irakasten dio: ipuin bat da bizia. Ipuin bat ezer ez da, kontatzen ez bada; kontatu ahala sortzen da, eta sortu ahala desizanduz doa hitzekin batera. Ipuin bat da Bitoriano bera: kontatu ahala ezerezero badoan nortasuna, badoan denbora. Gelditu gabe orainaren karretetik iraganaren karretera pasatzen ari den filma.

“Tel Aviv” *Uda batez Madrilen* izan zen saio bera da. Beharbada hango bizitasuna eta emozioa gabe, soegile huts: ariketa bat ja, ez grina bat. Beste aro bat da honez-

kero Gandiagaren ariman. Emozio handiak, Lur Santuetan bizitu dituenak, bere kolkoan bakarrik nahi izan ditugorde, otoitz bat gordetzen den bezala. “Nire lurra, nire herria”k *Hiru gizon bakarka* gogoraraziko dio apika irakurleari. “Nire gauzak eta jendeak” *Denbora galdu alde*ren jarraipena izan liteke; agian ez da bidegabekoa pentsatzea, “Nire denborak eta bakardadeak”ekin batera, ez al duen halaber *Elorri* berpiztu gura eta, bide batez, gutxiegi erreparatu izan den *Elorri*-tik *Hiru gizon bakarka*-ra, etenak eten, bazegoen jarraipena, guri guztioi agerianago ipini. Aurreko obrekin loturak ebidenteak dira. Eta ebidentea, lotura horiek beren-beregi bilatzen direna espreski ikusarazi nahia ere irakurleari, sintesi moduko bat eskaini nahiko balitz bezala. Dena dela, Gandiaga, beti Gandiaga bera izanik, ez da hala ere errepikatzen.

Gandiaga arrakastatsuen ezbairik gabe *Hiru gizon bakarka*-koa izan da, garai bateko kontzientzia politiko saminari ahotsa eman diona. Irakurleak hemen Gandiaga hori berriro aurkituko du: Hamaika amaren eta amaren semeren minaz mindua, hormetako pintadek oihukatzen duten min uluarekin. “Odol eta neke arteko Euskal Herri batean tokatu zaigu bizitzea. Euskal Herria borroka handi batean sartuta dabil eta ni euskaldun bezala, jende pobreaken seme bezala, eta frantziskano bezala, borroka horren barru-barruan sentitzen naiz, ez dut kanpoan geratu nahi”. Gogoeta batzuetan polemika inplizitu bat sumatuko duzu: nola pentsatu gutako bakoitzaren banakotar, herritar eta mundutartasuna? Progrenek abertzaletasun nazionalistari unibertsaltasuna kontrajarri izan diote. Abertzaletasuna derrigor eskludentea al da? Gandiagak

nazionalismo mundial antzeko batekin erantzutzen die: buruaren gainean zerua eta oinen azpian lurra maite dituenak, zeru eta lur guztiak maite ditu. (Ez dituenak maite, beste gauza batzuk dira, ez beste aberriak). “Hemen jaioz, lurreko / lurlean jaio gara, / ta lurraren edozein / alderdi maite dugu / lurra batasun eta / osotasun bakar / aitortzen dugulako...” Ez dela erantzun polemiko hutsa, hurrengo orrian ulertzen dugu sakonkiago. Iragankor oro ahaztuz munduan eta geure barneenean biltzen garenean, heriotzaren aurrez aurre, azken errealitatean dena bat da, denok eta dena bat gara, “gauza guztien barruz dabilen / odol bakarra”. Kritika politikorik ere ez da falta: “geure” politikoa batik bat –abertzaleak, sozialistak–, agintera orduko, aginpekoak izan zirela, ahazten dutenak; euskaldunon harrokeria eta handiuste barregarriak, ausarkeria askoren azpiko gure koldarra (bizarrak estaltzen ez duena), gure ameskeriak.

Orain, borroka politikoa baino markatzenago dena, bere Euskal Herri zahar kutunaren suntsipena da modernitatearen uholde azpian. Euskal Herri kultural hori (Gandiagarekin batera) hiltzen ari den mundu bat da, umetan ezagutu zuena eta berak beti ere maite duena, arrotza gaurko gazteentzat: “Baserritik kalera / etorri gara; / gure haurrek / ipuin bezala entzuten digute / nekazal bizimodua”. Gandiagak –deitoratu ez, sentitu bai: oroit lehenagoko “nik ez dut esnatuko, / baina maitatu bai” hura– historia ez du gaitzesten. Euskal gizartearen kale-tartzea, eskola orokortua, autoa etxe bakoitzean, aurrerapena eta aldaketa: biziaren legea da, denboraren arau erremediorik gabekoa – “baina penagarria”, esango du Bi-

torianok. Badirudi lehen aldiz interesatzen dela historiaz – baina ez da historiaz, interesatzen dena! “Orixe-ren *Euskaldunetarik / gertuago dut sustraia*”, aitortzen du behialako eztabaida batzuei erreferituz (eta aitortzako ni hau poetarena da dudarik gabe), “industria eta teknika-inguru honetatik / baino”. Orbelaungo mutikoari adina Gandiaga poetari, mundua errotik aldatu zaio:

Nekazaritza-munduan jaio,
industriakoan bizi,
mundu bitzuon sintesirikan
egiten ez dut ikasi.
(...)

Munduak zapal egin dit jira
balio zaharrak irauliz.
Ipuin bat beste ezer ez gara
gaur geroztiko gizaldiz.

Haurtzaroko Euskal Herri zahar hori, Gandiagaren obra osoan hondoa egiten zuena, lehen planora dator. Gandiaga hiltzen ari da eta, inoiz baino sentiberago, beti bere-berea izan den Euskal Herri zahar hartara itzultzen zaio izpiritua. Mundu hori haurtzaroko Nabarniz da. Baina baita, oraingo mundukoak ez diren bere bizi guztiko Arantzazuko bide zaharrak ere mendietan, errekaldeetan, artzain eta nekazari paraje aparteetan. “Oinez baino belarritz” ibili izan dituen arbaso antzinakoen, esaldi luzeak diren bide zeharkariak, ipuinez eta legendaz beteak airean –“ezagutzen dudak / erromantzetegi / ederrena”–, lanez eta historiaz kargatuak zoru lakarrean; isiltasun luzeen bideak gaur egun, “gero eta isilago / gizonon oroitzapene-

an”. Gandiaga bezalako banaka batzuk kenduta, geroz eta jende gutxiago dabil bideotan. “Bakardadeko bideok / bakarrik ere badagoz”, erasotzen dio sentimenduak bihontza. Zaharkinduz eta hondatuz doaz, abandonatuak, eskabadora gogorrek zanga berriak urratzen dituzten bitartean mendietan landroverrentzat, ez gurdientzat. Larrebehiak berak berriak iruditzen zaizkio.

Begiak “amaituz doan paisaia” horretan, hezur eta haragi dena poeta den Bitorianori, estetikaren arazoak biziarena bezala, denborak daroan paisaiak estetikaren arazoa planteatzen dio. Zer da idazleak –poetak– egiten duena? Gandiagak bere gauzak maite ditu, eta horixe egiten du beste edozeinek:

Bakoitzak
berari dirudizkionen
apologia dagi.
Idaztea
ba al da beste ezer
bakoitzaren
ikuspuntutxo
propaganda
baino?

Gandiagaren obra osoa propaganda izan da, hortaz; berak maitasunaren begiekin ikusi dituen parajeon, bideon (“hain sentimen biziz / lotzen naute / gizonon betiko / nekezko historiaz”) propaganda. Berak hor topatu ditu aspaldiko arbasoak, guraso eta herrikiide lagunak berarentzat. Hori izan du etxea eta familia. Hori kantatu dizu (“lurra dut kantakizun”), berak ikusi eta maitatu bezala.

Baina honezkero, “nik ikusi nuena / ez du bestek, /
nik ikusi nuen era berean / ikusiko”. Berak ere ezin du
ikusi, arbasoek berek ikusi zuten bezala. Denboraren le-
gea hori ere. Denboraren joairan momentu bat, ez gara
besterik. Ikuspuntu diferenteetatik ikusten dugu bakoi-
tzak. Errealismoak hala agintzen du. Inor ez gara ikus-
puntutxo hori baino gehiago:

Bide berriz aurrera begiratzen dut,
biderik oraino ez den hartarantz,
eta etortzekoak ditut iruditzen,
beren begien aurreko
munduari begira.

Ez dute antzemango
guk zer-nola genuen ikusi mundua,
haiek zer-nola ikusiko duten,
inola ere, ezin dezakegunez antzeman.

Zer egiten duzu orduan, poeta zoro horrek, egungo
munduan, iragan denboretako zure ikuspuntutxo horren
propagandan, ezin ulertu omen dutena zure irakurleek
–gazteak–, zuk beraiek ulertzen ez dituzunak apika? *Elo-
rri*-ren kritikak min sakon bat, inoiz ahaztuko ez duen
mina, utzi dio Gandiagari. Denborarekin, ordea, zentzu
positiboan itzuli eta asumitu egingo du kritika hura, bere
ezaugarri naturala bezala tematsu beregain hartuz ezordu-
kotasuna. “Erromantiko nabil”, aitortu baino aldarrikatu-
ko du, azken urteotan negatiboki markatu dugun kon-
zeptu lardats hori apropos banderatzat hartuz beretzat.
“Betiko gaitza dut, / ezin sendatua”.

Gandiaga erromantiko? Haren estetika erromantikoa ez beste guztia baita, klasikoa –edo klasizista behinik behin– izan gabe horregatik. Idaztearen eskulangile soil bat kontsideratzen du gaur berak bere burua, eta gurago ditu ahaztu, behiala kezkalarritu izan duten beste komeria guztiak. Teoriarik ez du nahi. Eskolak, doazela pikutara. Ez du modernoa izan nahi. Ez du ezer izan nahi. Bere lana, gauzen artean hitza kokatzea izan da, gauzen ahalik berdinen, horman morteroa bezala harrien artean – gauzei gauzak izaten utziz, edo agerpen beti berriak gauza beti berriak bihurtuz hain zuzen hitzen orean: “izenak jarriz / ibili ihardun / norbere bizikizun / egunero berriei..., / egunero estreinatzen ditugun / uneei / izen berriak asmatuz” (inpresionista esanen ote diogu?). Poesia hitza da, eta hitza –bere eskuetan–, a) gauzen izena da lehen-lehenik, “egunez eguneko / angelu berriz / gauzei adi”, mundu beti berri bati egokitze hitza beti berrituz. Hitza, b) ispilua da, gauzek ematen diguten irudi beti berriaren ispilu. Eta, c) musika da, erritmoa, herriaren ahotan –jende xumearen etorrian, “berritasuna sortzeko ahalmenean”– gauzek duten iturriko erritmoa, Gandiagak obeditu baino gura ez duena. Gandiagak ez du nahi, herri xumean ikasi zuena birproduzitu baino.

Hitza, herriaren hitza da. Gandiaga poetak jende –iturri, lur, arbola, sasi–, herri xume horrekin bat izan gura du. Denak bezalakoa izan, denekin ibili: “gehiengoaren pozaldi txikiz poztu, / gehiengoaren neke luzetan parte hartu”. Bera hori da. Herri hori da, noizean behin Gandiagaren baitan loratzen den lorea, esnatzen den txoria, haren barrutik kantari diharduena:

Ez naiz ni.
Ni, sasi besterik ez naiz.
Sasi-txoriak dihardu
nire buruz gaindi,
sasitzako loreak nire
barrentasunetik.

Baina herri xume hori badoan herri bat da, eta badoan herri horrekin bat da, doa Gandiaga. Itzaltzen ari den laborarien euskal herri zaharra, arbasoen herria. Bere burura eta barnera jaisten denean, Gandiagak herri hori entzuten dizu bere barruan. Horiekin dabil beti bere gogoeta bideetan –“oi zenbat alferriko maitasun!”– hauxe da bere “erromantizismoa”. Aspaldiko herrikide arbaso horiengana doa joan denboraren aldapan gora eta behera, Arantzazuko mendibide zaharretan doanean. “Pausoa pixka bat azkartuz gero, zeuokin bat egin behar dudala iruditzen zait, eta noizbaitzutan, zeuokin batera noala”.

Liburu hau adioaren melankoliak tindatua dago guztia. Minbiziak urrats agudotan geroz hartuagoa, Gandiagak bukatutzat eman beharrak dauzka ja hemengoak: behialako izerdiak mendietan, indarra gainezka, barreak eta kantak lagunartean, kontzentrazio urduria idazlan isilean, noizean behingo txaloak edo arrakastatxo pizgarri bat irakurleria gaztean. Gaitzak erretirora behartua, ezer ezin eginera bere burua zaindu baino eta egunean ordu batzuetan bisitatxoren bat eskertu, galdua dirudi denak – irudi ez, galdua dago jada dena, heriotza da (“heriotza behintzat / badut jarauntsitzat”) aurrean gelditzen den bakarra eta guztia. Hala ere, berarentzat bizi berri honetan heriotzaren zain, Gandiagak momentu ezberdinak

beha-behatzen jarraitu du, beti egin duen moduan, eta behaketa horiek hitz berrietan notatzen (“norbere bizikizun / egunero berriei / beren izenez deituz / jarraitu”) eskola ume saiatuaren kaligrafia dotore betiko berean. Gaixoaren udaberria apuntatzen du, kukua berriz hasi deanean; gaixoaren udazkena gero –akorduen aroa–, ikusgarritzko kolorez janzten dena Arantzazun, orain ikuskizun gozotristea. Badira desanimo orduak: “Ariman ere / egiten du euririk...” Kontrastea, olgetan dabiltzan neska-mutikoek egiten dute, euri potxingoetan saltoka anitz koloretako aterki eta ziraz. Gandiagak aski zuen ume batzuen jolasa edo egun-argi pixka bat “izatearen poza” berrirabazteko. “Maite dut bizitza, / maite dut, / eta bizipoza opa diot / bizitzari”, idatzi du heriotzaren atarian. Makalaren makalez eta oinaze latzez, bide bazterrean eserita bere pasieratxoan, bere buruari eta munduari absente bezala egoten da maiz, edozein belartxotan edo moxorroren lan txoetan biziaren indarrari adi:

Zenbat ordu
denbora akordu
gabeko geldi
erdi-
lokartu halako zoritan
edozein huskeri goxori
egote hutsaren zerutan
zurtuta!

Zerbait indarberritu orduko, beti egin duenera eta berak egiten dakienera itzultzen da eskuan paper orri bat eta bolalumarekin:

... berrikuntzaren
bentura miresgarria
goizero ta berriz
gauzei izenez deituz
arratsaldero errepikatuz
gauzen izenak soinu berriz
konstanteki
mirestuz
gauzen existentzia
unero berria.

Munduaren beti berria, gaixoaldiko esperientzia edo aurkikuntza berri bat izan da Gandiagarentzat. Hau da, lehen ere, egun bakoitzaren eta edozein gauzatxoren unero berria, inor bai-eta, bera miresmenez bete izan duen fenomenoa izan da, bere obra guztian; baina orain, hiltzeko dagoenean, bestelako esperientzia bat bilakatu da nolabait. Unibertsoaren etengabeko bere buruaren kreazioarena, eraberritzearena, izatearen irrista geldiezinarena, gauzen unero aurpegi berriarena, agerpen ororen unero etorri eta iragatearena.

Hain zuzen, estetiko-literarioki, azken liburu honetako Gandiagaren helburu berezi bat izan dela, sumatzen da, agerpenen begitartean unekotasun hori eta existentziaren denborazkotasuna atzematea, izatearen iheskorra espresatzea. Heriotza hurbilaren sentimendua, biziaren denborazkotasunaren meditazioa bilakatzen da. "Denboraren korrontek garamatza. / Nahitaez garamatza". Baina, a) existentziaren denborazkotasuna ez da heriotzaren puntuari bakarrik dagokiona, bizitzaren azken momen-

tuari; bizialdi guztia markatzen du, izatearen natura bera da hori, hilkortasuna: garen eta dagigun oro, momentu bakoitza, denborazkotasunaren baldintzen pean da. “Egun oro ari gara joanez”. Egunero bersortzen ari gara eta egunero ari gara hiltzen. Izatea, esentzien zeru platonikoan da betirautea, existentziaren mundu honetan ezirautea da, iragatea. Eta, b) denborazkotasunak, batetik, izatearen hutsaltasuna adierazten du (hutsaltasun natural bat, axanpa unamunotarrrik gabe), jaio den ooren hil beharra – tragikoa sentitu daitekeena, baina hala sentitu beharrik ez dagoena, apaltasun pixka batekin ere onar daitekeena, eskerron doi batez ere apika, errealitate ihestezin sinplea nolanahi ere:

Bagoaz. Eta gure pausoak
galdu egiten dira.
Uneko pausoen zarata
besterik ez gara hurrean.

Bagoaz. Besterik
ez gara.

Isiltasunen arteko pausoen metafora bizitzarentzat –komentuko klaustroan paseatzen, isiltasunak inguratuta, Gandiagak bere pauso makalak entzuten dituen bezala– errepikatu egiten da. Zer da bizitza – zer dut, alegia? Lehengo eta geroko isiltasun puntu handien erdian uneko pausotxoaren zarata besterik ez gara. Baina, zer gauza!, hil beharra naturala da, hala ere ez dugu hil nahi. Gandiagak, ongietortua dauka bere kontzientzian heriotza, baina ez du horregatik aberetxoaren erresistentzia natural bat

heriotzaren aurka sentitzea uzten. Gizaberearen historia beti da “anbigua”.

Bestetik, baina, denborazkotasunak, ez baliogabetu (edo baliogabetu bakarrik, modu batean hori ere egiten baitu), baliorik positiboenez betetzen du bizitzako une bakoitza. Denbora bizigintzako harria bezala da, harlandu ala harri mokor bilakatuko dena gure eskuetan, ala ezer ez, guk nola jardun. Une bakoitza bizian eskaintza bat da, zernahitarako posibilitatearen oparia. (Irekitasuna edo hutsa, munduak –historiak– daukan giza askatasunari aurkezteko, eta berari bakarrik, moldea da). Ez dago zoroago irioten dugun krediturik denborarena baino. Gure historia ez egina, egina bezain gurea da; eta ez eginak, eginak bezainbat egiten (desegiten) du gure aiurria, izaera. Batzuetan, geure buruari ez diogu sentimendu bat sentitzea, edo sentimenduan pausatzea baimendu nahi izaten. Une batean aukera eduki eta esan ez nuen hitza (protesta, kontsolamendua), eman ez nuen laguntza, ezer ez zitzaidana kostatzen, esan, eman gabe geratu dira betiren betiko. Betiko galduta. Hala goaz unez une, aukera galduz aukera galdu, gure sentigogortasuna sakontzen, gure inhumanitatea gotortzen: gizatasunean denok daukagun gizagabetasun zuloak, ustelak – gure izaera eta patua moldatzen. Une bakoitza ate bat da irekia, mila aldiz jaramonik ez eginez ixten duguna. Berriz etorriko ez den aukera:

Ezer bada, denbora galdua
bai geratzen dela
galdurik betiko!

Ez da berreskuratzen,
ezin daiteke;
hurrengo ordua
beste zerbaitetarako da, eta ez
lehen egin behar genuena
egiteko.

Denboraren berezko positibotasun horretan datza, hain zuzen, denboraren hutsaltasuna dagiena. Zenbat “gingo nuke”, egin ez nuena! Nahi bai asko, “ezer asko egin gabe / doakigu denbora”. Denbora –bizia– hutsarte bat da, eta zulo huts gelditu da betiko, neuk bete ez dudan momentu bakoitza –ez ezin dugunaren ametsekin beti, baina– errukizko gogoetarekin, poesiarekin, maitasunezko eta justiziazko egitatearekin, lanarekin. Bizia –denbora– betetzeko Gandiagaren programa, frantziskotar poeta batena izan dela, aitortzen digu berak hemen: “Ahal dudan neurrian bizi nahi duen nire lurrari, nire herriari, nire aportazioa eman nahi nioke. Pobretasunean alaitzen irakatsi, bizitza maitatzen, eguneroko lantxo apaletan, zalantzetan, ahultasunetan, ametsetan, guztion mi-xerietan, halare desanimatu gabe jarraitzeko. Gauza txikiak egiten ditugu denok. Gauza handiak egiten omen dituztenak ez dira nire jendea, nire herria”.

Mila miseria gizatar, gizatarregiren aurka bere kolkoan maiz asaldatu bada ere, Gandiaga animalia apala izan da. Atzera begiratu eta lan txiki, apaltzat dauka bere obra guztia. Berak, Arantzazun, bere egitekoa egin du, ez du beste munduko gauzarik egin nahi izan. “Bazekien pipe-riik balio ez zuten arlotan / ari zena”. Herri txiki bateko

jende txikiaren poeta txiki bat besterik ez da. Gauean pinudietan kutxurru-kutxurru edo tzi-tzi, tzi-tzi hegoak igurtzi eta igurtzi diharduen xomorroa baino ez da (“neure berri neure / buruari emateko / beste asmorik gabe”). “Badakit inor argitu / ezin dezakedana (...). Badakit inor gutxiri / ardura diezaiokeela/ nire berriketak”. Poeta bat gauza gutxi da. Bera poeta da. Euskalduna gauza gutxi da. Bera euskalduna da.

Gizon-emakumea bera da, azken finean, deus gutxi dena: “Mundua, / mundu zabala (...) / gizon ttikia hemen-han”. “Ez gara gauza handirik”.

Apala, azkenik, fedean ere. Ziurtasun harrorik gabe (erlijioa –Freuden neurosi kolektibo hori–, aspaldian filosofiak, soziologiak, psikoanalisiak, ikerketa historiko-kritikoak, nobelak berak, eta zerk ez, nahiko arakatu-kritikatu dago, kasi bibisekzionatua, eta erlatibizatua, besterik ez esatearren, inor oraindik seguruegi sentitzeko horrekin), berak bere buruari ematen dion konfiantzatxoaz bakarrik afrontatzen du heriotza. Beti joan eta joan denboraren itsaso ertzgabean (“izatearen poza / izangoaren kezka / gazi-gozatuz”), nora goaz?

Eta banoa
–nora badakit–,
(ba al dakit?
ba ote dakit nora?)
Jadanik egun, ordu,
une ez garakeen gerora.

Alabaina, entzun Pazko igande goizez liturgian iragarria: “Kristorekin piztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko

gauzak. Jarri zeuen gogoa goiko gauzetan, ez lurrekoetan, hilik baitzaudete, eta egiazko zuen bizia Kristorekin dago Jainkoarengan gordea”, Paulok Erroman heriotzara ezpataz kondenatua izateko aginean kartzelatik kolosotarrei idatzi gutuneko hitzak, eta Bitorianok, lurra inork ez bezala maite izan duenak, minbiziaren kartzelan orain bera, hartu paper orria eta bolaluma eta, itxaropenez jasorik, “lurraren gaineko / hegazti zauritu, / libertate mina / ezin dut gozatu / lurraren gainean”, zirriborratu du, apostoluak jarritako puntua bere fedearekin osatuz.